



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Ilker Arcayürek tenorrak eta Malcolm Martineau pianistak Clara eta Robert Schumanni eskainitako errezital bat eskainiko dute

- Kontzertua Madrilgo Juan March Fundazioarekin elkarlanean egingo da eta datorren asteartean izango da, azaroaren 4an, 19:30ean, Arriaga Antzokiko foyerrean.
- Errezitalak Lied Arriagan zikloaren laugarren edizioa inauguratuko du, zeinak jarraipena izango baitu datorren urteko lehen seihilekoan.

**Bilbo, 2025eko urriaren 31a.**- Datorren astean hasiko da LIED ARRIAGAN zikloaren laugarren edizioa, zeinak formatu txikiko errezitalak eskainiko baititu, pianoarekin eta ahotsarekin, oro har, Arriaga Antzokiko foyerreko giro intimo eta atseginean. Aurtengo edizioko lehen errezitala azaroaren 4an izango da, 19:30ean, eta Vienan hezitako **Ilker Arcayürek** tenore turkiarra eta **Malcolm Martineau** pianista eskoziarra izango ditu protagonista.

Arcayürek eta Martineau Arriagara iritsiko dira, Clara eta Robert Schumannen erreperitorio lideristikoari eskainitako musika emanaldi bat eskaintzeko. Madrilgo Juan March fundazioarekin lankidetzan antolatutako kontzertuaren egitarauan azpimarragarriak dira, batetik, Clararen *Lieder*, op. 12 lan eder, sakon eta dramatikoak, Rückert, Heine eta Geibelen hitzak dituenak, eta, bestetik, Roberten *Dichterliebe*, op. 48, Heinrich Heineren poemetan oinarritutakoa; aldebikoa ez den maitasun istorio bat kontatzen du, itxaropenetik bihozminera doan progresio emozional batekin.

Emanaldi honekin, Ilker Arcayürek abeslariak debuta egingo du Arriagan. Abeslaria oraindik ez da oso ezaguna gure inguruan, baina nazioarteko zirkuituan dihardu jada. Nabarmentzekoak dira Arcayürek tenorearen fraseatze fina eta kontzertuen indar hunkigarria. Hugo Wolf Alemaniako akademiako Nazioarteko Kantu Lehiaketa irabazi zuen, eta finalista geratu zen 2015eko Cardiff Singer of the World lehiaketan; era berean, BBC Radio 3 irratiak New Generation Artist izendatu zuen. Malcolm Martineau, bestalde, Lied Arriagan zikloaren azken edizioan ere aritu zen, joan den urtarrilean. Orduan, Irene Mas Salom abeslariaren alboan erakutsi zuen tekletan duen trebezia. Carnegie Hallen, New Yorkeko METen eta Londreseko Royal Opera Housen ohikoa den pianista bikaina gurera dator berriro, oraingoan, tenore turkiarra alboan duela.

### Lied Arriagan zikloa

Arriaga Antzokiak Lied Arriagan zikloaren laugarren edizioa antolatu du denboraldi honetan eta, aurtengo ere, Rubén Fdez. Aguirre maisua izango da zikloaren koordinatzailea. Ilker Arcayürek eta Malcolm Martineauk inauguratuko dute zikloa datorren asteartean, eta denboraldirako aurreikusitako gainerako bost kontzertuak 2026an egingo dira. Honako hauek izango dira: **Ferrán Albrich eta Rubén Fdez.**

**Aguirre** (urtarrilaren 27an); **Hera Hyesang Park eta Rubén Fdez. Aguirre** (martxoaren 24an); **Juan Laborería eta Carmen Santamaría** bere *Norteñas* errezitalarekin (apirilaren 14an); **Iris Candelaria eta Rubén Fdez. Aguirre** (maiatzaren 19an), eta **Marisa Martins eta Miquel Ortega** (ekainaren 9an).

#### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 18 euro (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)